



# Euskadiko negoziazio kolektiboaren egiturari eta jarraipenari buruzko metodologia eta definizioak

CRL  LHK

Ian harremanen kontseilua consejo de relaciones laborales

Lan Harremanen Kontseilua

*Euskadiko negoziazio kolektiboaren egiturari eta jarraipenari  
buruzko metodologia eta definizioak*

## Aurkibidea

<b>Sarrera</b>	<b>5</b>
<b>Negoiazio kolektiboaren egitura</b>	<b>5</b>
<b>Negoiazio kolektiboaren jarraipena</b>	<b>9</b>
a) Hitzarmen kolektiboak berritzeko prozesua	9
<i>Urte hasierako egoera</i>	9
<i>Negoiazio prozesuen bilakaera urtean barrena</i>	10
<i>Azterketaren uneko egoera</i>	10
b) Negoiazio kolektiboaren eduki batzuk	11
c) Aurreko urteko negoiazio kolektiboa	12



## Sarrera

Agiri honetan, modu errazean azaldu nahi izan ditugu Lan Harremanen Kontseiluaren jarduerako oinarritzko kontzeptu batzuk EAEko negoziazio kolektiboaren jarraipenaren inguruan. Horretarako, bi atal nagusitan zatitu dugu agiri hau. Lehenbizikoa, "Negoiazio kolektiboaren egitura" da eta, bertan, EAEn eragina duen negoziazio kolektiboaren lurralde zein funtzio eremuak deskribatzen saiatuko gara; bigarrena, berriz, "Negoiazio kolektiboaren jarraipena" da eta, bertan, hitzarmenak berritzeko prozesuaren jarraipenaren inguruan Lan Harremanen Kontseiluak egiten duen lana eta eduki behinenetariko batzuk azaltzen ahaleginduko gara.

## Negoiazio kolektiboaren egitura

*Negoiazio kolektiboaren egitura* deitzen diogu EAEn aplikatzen diren hitzarmen kolektibo guztien deskribapen artikulatuari eta hitzarmen hauek ukitutako lagunen kopurua zehazteari. Ondorengo lerroetan egitura hau azaldu nahi dugu eta, horretarako, grafiko bat garatuko dugu hitzarmen horiek nola artikulatzen diren adierazteko.

Negoiazio kolektiboaren egiturari buruzko grafikoa egiteko, lehenik eta behin, hitzarmen kolektiboaren eraginpeko EAEko soldatako biztanleria zehaztu behar da.

Soldatako biztanleria gizarte segurantzako sistema publikoan izena emanda dauden Euskal Autonomia Erkidegoko langileak dira. Baina biztanle hauek guztiak ez daude hitzarmen kolektiboaren eraginpean. Beraz, hasteko, zehaztu behar da soldatako biztanle horien artean zenbatek dituzten bere lan baldintzak hitzarmen kolektiboaren bitartez arauturik. Xede horretarako, eragiketa konplexu bat egin behar da, noizbait Euskal Autonomia Erkidegoan zein Estatuan erregistratu diren hitzarmenak identifikatzeko eta langileak hitzarmen horiei atxikitzeko<sup>1</sup> (bistan da, Estatuan erregistratutakoak EAEn eragina dutenean baino ez ditugu kontuan hartuko).

Gure azalpen grafikoaren xedeetarako, hitzarmen kolektiboaren eraginpeko soldatako langileen kopurua zehazteko, bi kolektibo kendu behar zaizkio gizarte segurantzako sistema publikoan izena emanda dagoen soldatako biztanleria osoari:

- Funtzionario publikoak eta estatutupeko langileak, izan ere, lan baldintzen akordio arautzaileak<sup>2</sup> deitutakoen arabera gobernatzen dira horien lan baldintzak.
- Hitzarmen kolektiborik gabeko langileak osatzen duten multzoa<sup>3</sup>, eta azterlan hau egin den unean denbora tarte esanguratsu batean<sup>4</sup> hitzarmena berri gabe duten langileak.

Horrenbestez, grafikoaren garapenaren lehenengo maila hau ondoren agertzen den moduan irudika daiteke:


<sup>1</sup> Eragiketa hau egiteko LHKak berariazko azterlan bat egiten du, bertan, alde batetik, hitzarmen kolektibo propioa duten enpresetako langileak "zenbatzen" dira eta, bestetik, gainerako langileak Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN) arabera kasuan kasuko enpresari dagokion sektoreko hitzarmenari (EAEkoari edo Estatuakoari) atxikitzen zaizkio. Egiturari buruzko azterlana bi urtean behin eguneratzen da.

<sup>2</sup> Akordio hauek guztiak 9/1987 Legeak xedatutakoaren arabera garatutakoak dira eta, beraz, Langilearen Estatutuak zehaztutakotik at.

<sup>3</sup> Inongo sektoreko hitzarmenen barruan ez dauden jarduerak burutzen dituzten enpresetako langileak dira.

<sup>4</sup> Gaur egun, negoziazio unitate bat bertan behera utzia izan dela jotzeko, hamar urteko irizpidea darabilgu, hitzarmen kolektiboaren indarraldia amaitu zenetik zenbatzen hasita.


Hitzarmen kolektiboaren eraginpeko soldatako biztanleriaren zehaztapena



Grafikoa garatzeko hurrengo urratsa hitzarmen kolektiboaren eraginpeko soldatako biztanleria hori lau mailatan banatzea da.

*Lehen mailan* bereizi behar ditugu hitzarmen kolektiboaren eraginpeko esparru publikoa<sup>5</sup> eta esparru pribatua. *Bigarren mailan* EAEn negoziatu eta erregistratutako hitzarmenak eta EAEn eragina izan arren Estatuan erregistratu direnak bereiziko ditugu esparru hauetariko bakoitzean:


EAEn eta Estatuan negoziatutako hitzarmenak esparru pribatuan eta publikoan



Negoiazio kolektiboaren egiturari buruzko grafikoaren garapenaren *hirugarren maila* esparru pribatuari dagokio bakarrik. Izan ere, maila honek negoziazioaren funtzio eremuak bereizten ditu (sektoreko hitzarmenak eta enpresako hitzarmenak) eta, esparru publikoan sektoreko negoziazio kolektiborik ez dagoenez, hirugarren mailako banaketa hau esparru pribatuan baino ez da egiten:


<sup>5</sup> Langile hauek zerbitzua esparru publikoan ematen duten arren, lan zuzenbideari atxikirik aritzen dira, beraz, bereizi behar ditugu hauek eta akordio arautzaileak dituzten langile publikoak (funtzionarioak edo estatutupekoak), izan ere, azken hauek ez dira hitzarmen kolektiboaren eraginpeko soldatako biztanleriaren parte.

Esparru pribatuko sektoreko eta enpresako hitzarmenak




Laugarren mailan azken banaketa bat egin dugu: EAEn negoziatutako hitzarmenen lurralde eremuak, bai sektorekoak bai enpresakoak. Bereizketa hau EAEn erregistratutako hitzarmenetarako baino ez dugu egiten, izan ere, Estatuan erregistratutako hitzarmenen eremua estatua baita beti, dena dela, guk EAEn eragina dutenak baino ez ditugu kontuan hartzen; jakina, EAEn negoziatu eta erregistratutako hitzarmenak lurralde eremu desberdinetakoak izan daitezke. Gure banaketa honetan lau eremu bereizi ditugu, hau da, lurralde historiko bakoitzeko hitzarmenak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta lurralde arteko hitzarmenak deituko ditugunak (EAEko lurralde historiko bat baino gehiago ukitzen dituztenak).

EAEko esparru pribatuko lurralde eremuak



Banaketa hauek guztiak batera jarrita ateratzen dugu negoziazio kolektiboaren egituraren mapa osoa:

## EAEko negoziazio kolektiboaren egituraren mapa





## Negoiazio kolektiboaren jarraipena

Negoiazio kolektiboaren jarraipena da Lan Harremanen Kontseiluak aldizka egiten duen azterlanaren ardatza. Egituraren definizioa instrumentala da jarraipen lan horri begira. Ikuspegi dinamikoaz aztertzen dugu negoziazioa jarraipen lan honen bitartez. Lehenik eta behin, hitzarmenak berriitu eta eguneratzeko prozesuaren aldetik. Bigarrenik, negoziazio kolektiboaren bitartez une orotan zehazten diren lan baldintza materialen aldetik.

### a) Hitzarmen kolektiboak berritzeko prozesua

Negoiazio kolektiboko prozesuek urtean barrena izan duten jarraipena egituraren mapan oinarritzen da, izan ere, bertan sartzen dira EAEn aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo guztiak eta hitzarmen hauek ukitutako langile guztiak.


#### Urte hasierako egoera

Egiturari buruzko datuei esker, negoziazio prozesua zein eremutan garatuko den iragar dezakegu: *indarraldia amaiturik daukaten hitzarmen kolektiboaren eremuak*.

Urte bakoitzaren hasieran negoziazio kolektiboaren egoera agertzen duen grafikoaren erdiko zutabearen honakoak islatzen dira:

- Lehenagoko urteetako hitzarmen kolektiboak (**zutabe grisa**: aurreko urteetan negoziatu eta erregistratuta egonda aztergai dugun urtean ere indarrean dauden hitzarmenek ukitutako pertsona kopurua<sup>6</sup>) eta
- Berritu gabe dauden hitzarmen kolektiboak (**zutabe gorria**: aurreko urteko abenduaren 31n indarraldia amaitutako hitzarmenek edota denbora bat berriitu gabe daramaten lehenagoko urteetakoek ukitutako pertsona kopurua).


Erdiko zutabe honetan bi banaketa egin ditzakegu: ezkerrean lurralde eremuak daude eta lehen aipatutako datu berak islatzen dira bertan (negoziatutako hitzarmenak eta berriitu gabe dauden hitzarmenak) negoziazioaren bost lurralde eremuetarako. Eskuinean, berriz, banaketa bera jasotzen da, baina oraingoan funtzio eremuen arabera, hots, sektorekoak eta enpresakoak bereizirik.



<sup>6</sup> Urte hasierarako negoziazio kolektiboaren zati bat eginda egon ohi da hein batean, izan ere, hiru urterako negoziatzen dira hitzarmenak, batez beste.

### Negoiazio prozesuen bilakaera urtean barrena

Urte hasierako egoera abiapuntutzat hartuta, urtean barrena sinatzen diren hitzarmenak hileroko jasotzen dira barra berdean, ondoko grafiko honetan islatzen den bezala:



- BERRIZTATU GABEKO HITZARMENAK: Indarraldia amaitua duten eta berriztatu ez diren hitzarmenek ukitutako langileak.
- URTEAN ZEHAZ ERREGISTRATUTAKO HITZARMENAK: Urtean zehar erregistratu diren eta indarrean dauden hitzarmenak ukitutako langileak (hilero metatutako kopuruak).
- AURREKO URTEETAKO HITZARMENAK: Aurreko urteko abenduaren 31 arte erregistratu diren eta aipatutako urtean indarrean dauden urte anitzetarako indarraldiko hitzarmenak ukitutako langileak.

Horrela, informazio bikoitza lortzen dugu: batetik, nola garatzen ari den negoziazio prozesua urtean barrena, eta bestetik, zenbat diren ukitutako langileak eta zenbat hitzarmen dauden formalki indarrean<sup>7</sup> (berrituak) une orotan: bi segmentuen batura, hau da, grisa (lehenagoko hitzarmenak) eta berdea (urtean negoziatu eta sinatutako hitzarmenak).

### Azterketaren uneko egoera

Azkenik, hasierako egoera adierazteko erabili dugun taula berbera dakargu; emaitza une orotan eguneraturik, eta bereizirik lehenagoko urteetatik datozen hitzarmenak aztergai dugun urtean negoziatu eta sinatu direnetatik zein oraindik berritu gabe daudenetatik.

<sup>7</sup> Zaila da hitzarmen kolektibo bat onartu den une zehatza jakitea, horregatik irizpide bat finkatu behar izan dugu azterketa hau parametro homogeneoz egiteko: irizpidea *erregistro data* da. Hortaz, indarrean dauden hitzarmenez ari garenean, erregistratutako hitzarmenak esan nahi dugu (aurreko urteetan edo aztergai dugun honetan).





Eskema honi jarraituz, urtean barrena geure web gunean informazio eguneratua eskaintzen dugu, bai berritu gabe dauden hitzarmenak berritzeko prozesuari buruz bai soldata igoeren eta itundutako lanaldien inguruko une bakoitzeko emaitzei buruz.

**c) Aurreko urteko negoziazio kolektiboa**

Amaitzeko, irakurleak ikuspegi orokorra izan dezan, aurreko urteari buruzko *Euskadiko negoziazio kolektiboaren balantzea* izenburua duen dokumentua ere kontsultatzeko aukera dauka. Balantze horretan, negoziazio kolektibo prozesuen emaitzak eta haien inguruan sortutako lan gatazkak aztertzen dira.